

## XIV. Berdintasunerako gunea / Foro para la igualdad 2018

Lagun agurgarria:

Emakunde-Emakumeen Euskal Erakundeak **“XV. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GUNEA”** martxan jarri du, erakunde publiko eta pribatuek gizon eta emakumeen berdintasunaren alde antolatzen dituzten hainbat ekimenen urteroko topaketa. Aurtan, **2018ko urriaren 2tik abenduaren 15era egingo dugu.**

Edizio honetan, aurreko urteetan oso harrera ona eduki duenez, gune ibiltariaren formatua mantenduko da. Autobusa laugarren hiruhilekoan EAEko herrietara helduko da eta gunearen ekitaldien lekua izango da.

2018 guneak martxoaren 8ko kanpainaren lelo berbera izango du: **“Berdintasuna ikasi egiten da. Irakatsi berdintasuna”**, pertsona helduei eskatu nahi die belaunaldi gazteagoekin arduratsu jokatzeko eta egunero transmititzeko berdintasuna bizitzaren arlo guztietan.



Emakundetik zure elkarte edo erakundeak gune honetan parte hartzea nahi genuke. Horretarako, pentsatuta daukazuen ekitaldiren bat (jardunaldia, mahai-ingurua, mintegia, hitzaldia, esperientzien aurkezpena, e.a.) marko honetan antolatzera gonbidatzen zaituztegu. Erakunde bakoitzak bere ekimenaren ardura osoa izango du: edukia, antolamendua (aretoa, kudeaketa, ordutegia, hizlariak, deialdia, e.a.) eta ordainketa. Emakundek, berriz, erakunde antolatzaileen koordinazioa eta foroaren idazkaritza lanak eskainiko ditu, eta, azkenik, on line argitaratuko den egitaraua landuko du. Aldi berean, gunean egingo diren ekintzak hedatu eta ikustarazteko komunikazio mailan lan egingo dugu.

Zuen eskariak jasotzeko azken eguna uztailaren 24a izango da. Eta horretarako izen-emate bulletina bete behar duzu.

Ekimen hau zure interesekoa izango delakoan eta hausnarketa eta topaketa gune honetan zuen parte-hartzea izango dugulakoan, agur bero bat.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 29a

